

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ANIMAZIOA URIBARREN ABAROA EGOITZAN

Lekua:	Lekeitio (Bizkaia)
Modalitatea:	Hirugarren adineko pertsonen gizarte-dinamizazioa
Helburua:	Animazio jarduerak egitea hirugarren adinekoentzako egoitzan
Egunak:	Uztailaren 16tik 30era // Uztailaren 30etik abuztuaren 13ra
Adina:	18 – 26 urte
Plaza-Kopurua:	20 txanda bakoitzean
Mota:	Estatukoa
Hizkuntza:	Gaztelania eta euskara

Lekeitio, Bizkaiko herri xarmanta, Bizkaiko kostaldearen ekialdean dago. Bertan mendia eta itsasoa lotzen dira inguru zoragarria sortuz. Lea-Artibai eskualdean kokatuta dago, eta 1,8 km²-ko zabalera du. Lekeitiok gaur egun 7.000 biztanletik gora ditu



Hirigune zaharra hiriaren iragan arrantzale eta artisauaren isla da. Kale estu eta harriztatuez osatua dago eta horietan hainbat etxetzar, dorretxe eta komentu ezkututzen dira, denak bizitasun handiko portura begira. Han oraindik maiz ikus daitezke arrain freskoa portura dakarten ontziak edo sare-konpontzaileak lanean. Besteak beste, Isuntza eta Karraspioko hondartzak zein San Nikolas uhartea nabarmentzen dira bertako erakargarri ugarien artean.

Informazio gehiago:

Lekeitioko Udala: <http://www.lekeitio.com/eu-ES/Orrialdeak/default.aspx>

Bizkaia Euskal Kostaldea: <http://www.bizkaiaeuskalkostaldea.com/eu>

AUZOLANDEGIAREN DESKRIBAPENA

Ibilbide historiko luzeko auzolandegia da. 2000. urtetik garatu da, hau da, 17 urteko esperientziak bermatzen du. Uribarren Abaroa zaharren egoitzan gizarte-lana egiten denez, batetik, nagusien garapen integralean aurrera egin nahi da, eta bestetik, parte-hartzaile gazteek elkartasunaren balioa lantzea.

Zehazki honako lan hauek egingo dituzte boluntarioek:

- Psikomotrizitate-ekintzetan lagundu.
- Paseo eta irteeretan adinekoei lagundu.
- Aisialdiko eta jolas ekintzak antolatu.
- Festak eta talde-jolasak antolatu
- Egoitzako kideen arteko harremanak bultzatzeko ekintzak.
- Adinekoen egoitzatik kanpoko harremanak errazteko ekintzak

Uribarren Abaroa egoitzako gizarte-hezitzaileen laguntzarekin lan egingo dute gazteek. Halaber, egoitzaren arduradunak eta Lekeitioko Udaleko koordinatzaile batek gainbegiratuko dute auzolandegia, ondo funtzionatzen duela ziurtatzeko. Gainera, beharrezkoak diren Udaleko zein Egoitzako zerbitzuak eta langileak auzolandegiaren eskura jarriko dira.



ANIMAZIO JARDUERAK

Animazio taldeak hainbat ekintza proposatuko ditu, auzolandegiko partaideen eta auzolandegia hartuko duen komunitatearen arteko harremanak sendotzeko eta lanak garatuko diren ingurunea hobeto ezagutzeko. Bestalde, Euskadiko kultura eta ohiturak ezagutzeko lagungarriak izango dira.

Txangoak, bisita kulturalak Euskadiko hiri nagusietara eta kostaldera, kirol-ekintzak, jolasak... antolatuko dira. Besteak beste, piraguak, arrantzale-kofradiara bisita edota Lekeitioko Itsasontzi-museora bisita gidatua.

Ekintza horiek guztiak arratsaldero eta asteburuetan egingo dira, eta bertan auzolandegiko kide guztiak parte hartuko dute.

Programa aurrerago zehaztuko da programa. Animazio taldeak kontuan hartuko ditu boluntarioen proposamenak.



ERAMAN BEHARREKO GAUZAK

- Lo-zakua (ez dago izararik)
- Burkoa (behar baduzu)
- Garbitasun pertsonaleko artikuluak
- Dutzarako eta igerilekurako toallak
- Berokiak eta euritako arropak
- Mendiko oinetakoak eta kirola egitekoak
- Kapela eguzkitarako
- Eguzkitako krema
- Eguzkitako betaurrekoak
- Bainujantzia
- Txankletak
- Motxila txikia txangoetarako

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO AGIRIAK

- NAN edo atzerritar-txartela edo pasaporteak.
- Osasun-txartel indibiduala

AUZOLANDEGIAREN KOKAPENA ETA OSTATUA

Auzolandegiaren kokapena: “Uribarren Abaroa” hirugarren adinekoentzako egoitzan (Iñigo Artieta etorbidea, 2), Lekeitioko erdigunean.

Lekeitio Bilbotik 55 km-ra, Donostiatik 72 km-ra eta Gernikatik 22 km-ra kokatuta dago.

Ostatua: Aurreko urteetan bezala, **Lekeitioko “Antiguako Ama” udal-ikastetxean** hartuko dute ostatu auzolandegiko parte-hartzaileek. Egoitzatik 200 metrora dago. Honako instalazio hauek ditu:

- Bainugelak, solairu guztietan.
- Dutzak.
- Sukaldea eta jangela, bazkari, afari eta gosarietarako.
- Lotarako egokitutako gela, literak jarrita.
- Jardueretarako eskolako gimnasioa zein patioa erabili ahal izango dira.

AUZOLANDEGIAN HASTEAK

Auzolandegiaren lehen egunean, **18:00etan, Lekeitioko udaletxean**, Paskual Abaroa Hiribideko 51. zenbakian.

Ordu horretarako iritsi ezin denak (betiere, justifikatutako arrazoi bat dela medio), aurretik Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta hurrengo 24 orduetan, bederen, ailegatu beharko du auzolandegira.

NOLA HELDU AUZOLANDEGIRA

[Lekeitioren \(Bizkaia\) kokapen-mapa](#)

Bilbotik: BIZKAIBUS konpainiaren autobusa har daiteke (Irteera: Bilboko behin-behineko autobus-geltokitik: Termibus). Lanegunetan eta larunbatetan: 06:00etan. 06:45etik 13:45era orduro. 15:00etan. 15:45etik 20:45era orduro // Jai-egunak: 06:45etik 20:45era orduro. Tel.: 902 22 22 65. Informazio gehiagorako sakatu [hemen](#).

Donostiatik: PESA konpainiaren autobusa har daiteke. Autobusen maiztasuna hiruzpalau orduz aldatu ahal da. Tel.: 900 12 14 00. Informazio gehiagorako sakatu [hemen](#).

AUZOLANDEGIAREN AMAIERA

Auzolandegia azken egunean amaituko da, gosaria hartu eta gero, goizeko 09:00ak eta 10:00ak bitartean.

ASEGURUA

Eusko Jaurlaritzak partaide bakoitzari istripurako eta erantzukizun zibilerako aseguruia egingo dio.

Hala ere, gazte bakoitzak bere **osasun-txartel indibiduala** ekarri beharko du auzolandegira.

HARREMANETARAKO TELEFONOAK ETA E-POSTA

Eusko Jaurlaritza. Gazteria Zuzendaritza:

- Tel.: **945 01 95 01 – 945 01 95 36**
- E-posta: gazteria-auzolandegiak@euskadi.eus

ARAUAK

Auzolandegian izena eman baino lehen, auzolandegietako arauak ezagutzea komeni da. Ikusi www.gazteaukera.euskadi.eus webgunean (Auzolandegiak – Ezaugarriak, kuotak eta arauak).

PLAZARI UKO EGITEA ETA KUOTA ITZULTZEKO ESKATZEA

Informazio guztia www.gazteaukera.euskadi.eus webgunean dago (ikusi Auzolandegiak- Plazari uko egitea eta ordaindutako kuotaren itzulketa eskatzea izeneko atalean).